


Gipuzkoa europako batezbestekoaren ginetik haziko da

- *2016an Gipuzkoak %2,4ko hazkundera izango duela aurreikusten du Gipuzkoako Bazkondeak.*
- *2016ari begira Gipuzkoako enpresak europearrak baino baikorragoak dira, esportazioen eta enpleguaren arloan batibat.*
- *Gipuzkoa Europako ekonomia esportatzaileena izan da 2015ean.*


Donostia – 2016ko Urtarrilaren 26a - Gipuzkoako Bazkondeak Europako Enpresa-Perspektiben Inkestatik (60.000 enpresa baino gehiagoren iritzia jasotzen duen inkesta) ateratako datuek adierazten dute Gipuzkoako ekonomiaren hazkuntza sendotzen ari dela barruko merkatuaren eta kanpokoaren arteko hazkundera orekatuz. Hau dela eta, Gipuzkoako Bazkondeak 2016an Gipuzkoako ekonomiak %2,4ko hazkundera izango duela aurreikusten du.

Inkestaren arabera 2015a urte ona izan da Gipuzkoako enpresentzat, inkesta erantzun duten %71 euren **negozio zifra** handitu dutela kontutan izanik, 2016an ere aktibitate honek aurrerako bidea hartzen jarraituko duela aurreikusten dute eritmo baxuago batean bada ere. Hazkundera **barne merkatua** suspertzen orekatuko da, **kanpo merkatua** 2015eko zifrei eutsiko dien bitartean. **Enpleguari** dagokionez, Gipuzkoako enpresariak aurten kontratazio berriak egiteko asmoa azaldu dute, lan taldea handitzea espero dute azken urteko joerari jarraipena emanaz. Produkzio sektoreek, eraikuntza salbu, euren diru sarrerak handitzea espero dute, merkataritza sektoreak batibat, eta atzetik industriak eta gainontzeko zerbitzuek. Azpimarratu beharreko datua **inbertsioan** aurkitzen dugu, azken urte honetan enpresen heren batek inbertsioen bat egin duelako, 2008 urtetik gertatzen ez zen zerbati da hau. 2016ko enpresa giroa onuragarria eta sendoa aurkezten zaigu, baina zuhurtziarekin hartuta ekonomiak eta munduak bizi duen egoera geopolitikoa eta europak izango duen hazkunde motelaren aurreikuspena kontutan izanik.

Gipuzkoako enpresak europakoekin konparatuz, ikusten duguna da gipuzkoarrak susperraldia gehien sendotu duetenen taldean aurkitzen direla, europako batezbestekoaren ginetik daudelarik batez ere esportazioetan eta barruko merkatuan. 2015ean **barne merkatuan** egindako salmentei buruz, Gipuzkoako %57ko enpresariak 2014arekin alderatuz gehitu egin dituztela adierazi dute, hau bera esan duten enpresari europearrak %34a izan den bitartean. 2016rako Gipuzkoak barne eskarian moteltze bat izango duela ikusten da, Europak arlo honetan berrikuntza bat izango duela ikusten den bitartean. **Esportazioek** emandako emaitzetan ikusten denez, Gipuzkoa 2015ean Europako ekonomia esportatzaileena izan da, %56ak kanporako salmentak gehitu dituztela adierazi dute, europako kasuan %35a izan den bitartean. 2016rako aurreikuspenak antzekoak dira: Gipuzkoako enpresen %52ak gehituko dituztela diote eta berdina dioten europako enpresariak %37 dira. Espainian %57a dira hau adierazten dutenak eta Euskal Autonomi Erkidegoan %55a.



Enpleguaren arloan berriz, europarrak 2015eko egoerari utsiko diotela diote, gipuzkoarrek lanpostuak sortzeko orduan baikortasun piska bat gehiago adierazten dutelarik. Azkenik, **inbertsioari** dagokionez, Gipuzkoak 2015ean europako batezbestekoak baino emaitza hobek izan dituela esan dezakegu, 2016rako bai gipuzkoarrak eta bai europarrak antzeko aurreikuspenak egin dituzte enpresari gipuzkoarrak zerbait baikorragoak badira ere.




Euskal Autonomi Erkidegoa. 2016rako Perspektibak

Inkestaren emaitzek adierazten dute Euskal Autonomi Erkidegoarentzat 2015a urte onuragarria izan dela, hasiera batean pentsatzen zena baina hobetagoa. Susperraldia sendotzen ari denaren froga hazkundearen bi sektoreak orekatzen ari direla da, barrukoa eta kanpokoa. **Negoio zifrari** dagokionez, industria izan da aparteko garrantzia izan duena, merkataritzak gertutik jarraitzen diolarik. Eraikuntzak ere emaitza baikorrak izan ditu, azken urtetan izan duen doikutza kontutan izanik. **Enplegu** arloan berriz, %42ak 2015ean lan taldea handitu duela adierazi du, industria izan da langile gehien kontratatu dituen sektorea. **Barne merkatuan** errekuperatze zantzuak ikusten dira eta **kanpo merkatuari** dagokionez itxaropen

baikorra dute, 2015eko emaitzak gaindituko dituztela diote. Inbertsioak emaitza itxaropentsuak eman ditu, enpresarien herena baino gehiagok inbertsioaren bat egin duela adierazi du, eta aurren ere horrela izatea espero dute nahiz eta erritmo motelago batean bada ere.

Munduko ekonomia

Munduko ekonomiaren hazkundera neurritsua izaten jarritzen du eta orain gutxi berrikusi denean beheranzko joera izan duela kontutan izanik, 2015a %3,1ko datuakin itxiko dela ikusten da. 2016ean ere beheranzko joeraren arriskuak bere horretan jarraituko duela aurreikusten da, hainbat faktoreen eraginez: Txinaren hazkunderen inguruko kezka, Greziaren etorkizuna eurogunean, truke-tasan emango den balio-galera indartsua, petrolioaren prezio jaitsiera eta finantza merkatuen lurrunkortasunek sortu dezaketen kutsadura efektuak.



Crecimiento del PIB mundial en 2015


Por regiones:

- **Latin American and the Caribbean: -0.3**
 - Brasil: -3,0%
 - México: 2,3%
- **Emerging and developing Asia: 6,5%**
 - China: 6,8%
 - India: 7,3%
- **Euro area: 1,5%**
 - Francia: 1,2%
 - Alemania: 1,5%
 - España: 3,1%

Crecimiento del PIB mundial en 2016

Por regiones:

- **Latin American and the Caribbean: 0,8%**
 - Brasil: -1,0%
 - México: 2,8%
- **Emerging and developing Asia: 6,4%**
 - China: 6,3%
 - India: 7,5%
- **Euro area: 1,6%**
 - Francia: 1,5%
 - Alemania: 1,6%
 - España: 2,5%



Fuente: Fondo Monetario Internacional, World Economic Outlook Database, October 2015

2015eko Balantzea

Joan den urteari dagokionez, Gipuzkoak hazkunde baikorra izan du, Euskal Autonomi Erkidegokoarekin parekatua egon da nahiz eta piska bat altuagoa izan. Hori dela eta, Gipuzkoako BPG %2,8ko hazkundearekin itxiko dela ikusten da.

	BALANCE 2015		
	GIPUZKOA	PAÍS VASCO	ESPAÑA
PIB	2.8%	2.7%	3.2%
Empresas inscritas en la SS (dic-15)	1.5% 234 empresas más	1.1% 638 empresas más	2.5% 30.952 empresas más
Empleo*	1,8% 5.213 empleos más	1.7% 14.777 empleos más	2,8% 1.833.348 empleos más
Crédito al sector privado**	-3.4%	-2,8%	-3.1%
Balanza comercial (incremento anual %)	3.784 millones € 1.5%	5.654 millones € 5.3%	-14.762 millones € 69,1%

Nota: todos los datos son estimación de cierre, excepto los correspondientes al crédito y empresas inscritas

* Puestos de trabajo equivalentes: se obtienen como el total de horas trabajadas dividido por la media anual de las horas trabajadas en puestos de trabajo a tiempo completo en el territorio

** III trimestre de 2015, crédito deflactado, % variación real anual

Fuente: Eustat, INE, Ministerio de Economía y Competitividad, Ministerio de Trabajo y Cámara de Comercio de Gipuzkoa

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Irune Bengoetxea

ibengoetxea@camaragipuzkoa.com

943 000 310 / 688884347